

# Harriak

John Berger

itzulpena:  
Amaia Apalauza Olló

 BOOKTEGI



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

JOHN BERGER

# harriak

itzulpena:

Amaia Apalauza Ollo

Zuzenketa: Kristin Addis

Aroari, Enekorri eta Txibiri eskainia (malkarrak zelaitzen).  
Eskerrik asko orobat Arani eta Kristini (itzulpen-korapiloak askatzen).

Eqbal Ahmed, nire ustetan, bizitza betetasun osoz ikusten zuen gizon bat zen. Abila zen, bizia, tontakeriatan denbora gutxi eman zalea, sukaldean aritu zalea, eta oportunisten kontrakoa, hau da, bizitza zatikatzearen kontrakoa. Behin, Indiaren eta Pakistanen banaketaren garaian Bihar-en iragan zuen haurtzaroari buruz idatzi nuen. Gau batean Amsterdamgo ostatu batean kontatu zidanaren papereko bertsioa zen. Irakurri zuenean, bere izena aldatzeko eskatu zidan. Eta halaxe egin nuen. Hain zuzen, istorio hark kontaktzen zuen zerk eraman zuen iraultzaile izatera hamazazpi urte zituela. Orain, hila delarik, atzera itzultzen diot bere izena.

Eqbal, Franz Fanon-en idazlanek akuilaturik (bereziki *The Damned of the Earth* [Lurreko kondenatuak]), bete-betean sartu zen zenbait askatasun-borrokatan, baita palestinarrenean ere. Gogoan dut Jenin-i buruz mintzatu zitzaidala. Bere bizitzaren azken aldera, pentsaera libreko unibertsitate bat sortu zuen, Pakistanen, eta Ibn Khaldun XV. mendeko filosofo handiaren izena ezarri zion, zeinak soziologiaren diziplina irudikatu baitzuen hura existitu aurretik ere.

Eqbalek gazte-gaztetan ikasi zuen bizitzak banaketak dakartzala ezinbestean. Tragikotasunaren kategoria zaborra bezala baztertua izan aurretik, edonork aitortuko zuen hori. Eqbalek, nolnahi ere, ezagutzen eta onartzen zuen tragikotasuna. Eta, horrexegatik, energia miragarri pila bat xahutu zuen loturak eratzen (adiskidetasunezkoak, elkartasun politikozkoak, leialtasun militarrezkoak, poesia partekatuzkoak, abegikortasunezkoak), denak ere ezinbesteko banaketen ondotik bizirik irauteko aukera zuten loturak. Oraindik ere gogoan dut nolako otorduak prestatzen zituen. Ez nuen espero Ramallahn harekin topo egitea. Baina, harrigarria bada ere, han hartu eta zabaldu nuen lehen liburuak Eqbalen argazki bat zekarren hirugarren orrialdean. Ez, ez nenbilen haren bila. Hala eta guztiz ere, ondoan izan nuen hiria bisitatzea erabaki nuenean, eta, are, mezu bat utzi zidan, nire irudimenaren pantaila ttikian ikusi nuena, sms bat balitz bezala.

Erreparatu harriei!, zioen.

Ados, erantzun nuen, nire erara, harriak.

Zuhaitz batzuek, bereziki masustondoek eta mizpirondoek, oraindik ere kontaktzen dute ezen aspaldi-aspaldi, beste bizitza batean, Nakbahen aurretik, Ramallah aisiarako eta atsedenerako hiri bat izan zela dirudunentzat, handik hurbileko Jerusalemgo uda beroetatik alde egiteko bakartoki bat, oportleku bat. 1948ko katastrofeari deritzo Nakbah: hamar mila palestinar hil, eta beste zazpiehun mila behartu zituzten beren herrialdetik alde egitera.

Aspaldi-aspaldi, bikote ezkonberriek arrosa-landareak landatzen zituzten Ramallahko lorategietan, etorkizunean elkarrekin egingen zuten bizitzaren seinale gisa. Hango lurzoru alubiala egokia zen arrosentzat.

Orain, Ramallahren (Palestinako Agintaritzaren hiriburua gaur egun) erdigunean ez da horma bakar bat ere egonen hildakoen argazkiz estali gabe, denak ere bizirik zeudela atera eta orain afixa txiki gisa berrinprimatuak. 2000ko irailean hasi zen Bigarren Intifadako martiriak dira. Haien artean daude Israelgo armadak eta kolonoek hil zituztenak eta kontraeraso suizidetan beren burua sakrifikatzea erabaki zutenak. Aurpegiok paper eta irudi pribatuen zorro bat bezain gauza intimoa bilakatzen dituzte kaleko horma soilak. Eta zorro horrek badu tolesturatxo bat Israelgo segurtasun-zerbitzuek ematen duten nortasun-agiri magnetikoarentzat, ez baitago palestinarrik hura gabe kilometro gutxi batzuk ere egin dezakeenik, eta beste tolesturatxo bat eternitatearentzat. Afixen inguruan, hormak bala- eta metraila-markaz josita daude.

Bada emakume adintsu bat zorro ugaritako amona izan litekeena. Badira mutiko nerabeak, badira aita asko. Haien heriotzari buruzko istorioak entzutean, pobrezia zer den datorkit burura. Pobrezia premiatzen ditu hauturik gogorrenak, ia deus ez dakarten horiek. Pobrezia ia horrekin bizitzea da.

Hormetako aurpegiatoko mutil gehienak iheslari-esparruetan jaio ziren, txabola-auzoetan bezain pobre. Garaiz utzi zuten eskola, familiarentzako dirua irabazteko edo aitari bere lanean laguntzeko, baldin eta halakorik bazeukan. Gutxi batzuek futbol-jokalari izar bihurtzea zuten amets. Mordoxka batek habailak egin zituen zura taillatuz, sokak txirikordatuz eta larrua bihurrituz, Okupazio Armadari harriak jaurtitzeko.

Liskarretan erabiltzen diren armei buruzko edozein konparaziok ere gogorarazten digu zer den pobrezia. Alde batean, Apache eta Cobra helikopteroak, F16ak, Abrams tankeak, Humvee jeepak, zaintza-sistema elektronikoak, negar-gasa; bestean, habailak, tirabikeak, telefono mugikorak, kalashnikov hondatuak eta, oro har, etxean eginiko lehergailuak. Haien arteko alde izugarri handiak agerian uzten du horma bihozmindu horien artean sentitzen dudana zer bat, izendatzen ez dakidana. Israeldar soldadu bat banintz, armaz ongi hornituta banengo ere, azkenean zer horrek izutuko ninduke. Baliteke Murid Barghuti poetak igarririko hura izatea: «Bizirik dagoen jendea zahartu egiten da; martiriak, aldiz, gaztetu».

Hiru istorio hormetatik.

Husni an-Najjar, hamalau urtekoa. Aitari laguntzen aritzen zen, zeina soldatzailea baitzen. Harriak jaurtitzen ari zela hil zen, tirokatuta; bala bat sartu zioten buruan. Argazkian, distantzia ertaineranzko begirada narea eta tinkoa dauka.

Abdelhamid Kharti, hogeita hamalau urtekoa. Margolaria eta idazlea. Gaztetan, erizaintza-ikasketak egin zituen. Boluntario jardun zuen larrialdi-unitate mediko batean, zaurituak erreskatatzen eta zaintzen. Kontrolgune batetik hurbil aurkitu zuten haren hilotza, liskarrik gabeko gau baten biharamunean. Hatzak moztuta zeuzkan. Hatz lodietako bat zintzilik zeukan oraindik. Hautsiak zituen beso bat, esku bat eta matraila. Hogeia bala zeuzkan gorputzean.

Muhammad ad-Durra, hamabi urtekoa, Bureijeko esparruan bizi zen. Aitarekin etxera bueltan zihoala, Gazako Netzarimgo kontrolgunea zeharkatu, eta autotik irteteko agindu zieten. Soldaduak tiroka hasiak ziren ordurako. Berehala, zementuzko horma baten atzean babestu ziren. Aita keinuka hasi zen, han zeudela ohartarazteko, eta tiro egin zioten esku batean. Handik pixka batera, Muhammadi oinean egin zioten tiro. Aitak, orduan, bere gorputzaz babestu zuen semea. Bala-tiro gehiago jaso zituzten biek, eta mutikoa hil egin zuten. Medikuek zortzi bala atera zizkioten aitari gorputzetik; zaurien ondorioz, baina, paralsiak jota geratu zen, lan egiteko ezgai, eta harrezkero langabezia dago. Gertaera hura grabatuta geratu zenez, haien istorioa behin eta berriz kontatzen da mundu guztian barrena.

Marrazki bat egin nahi dut Abdelhamid Khartirentzat. Goizean goiz, Ain Qiniya herrira joan gara; harago bada beduinoen kanpamentu bat, uadi baten ondoan. Eguzkiak oraindik ez du berotzen. Ahuntzak eta ardiak bazkatzen ari dira, gutxi gorabehera, kanpadenden artean. Ekialdera begirako muinoak marraztera deliberatu naiz. Harri baten gainean eseri naiz, kanpadenda txiki beltzaxka baten ondoan. Koaderno bat eta boligrafo hau besterik ez daukat. Lurrean botata bada plastikozko ontzi bat, eta bururatu zait ur pitin bat hartuko dudala iturriko ur-zirristatik, behar izanez gero tintarekin nahasteko.

Tarte batez marrazten aritu ondoren, gizon gazte bat hurbildu zait (kanpamentu osoa ohartu baita han nagoela, jakina); nire atzean dagoen kanpadenda ireki, sartu, eta berriz atera da, plastikozko aulkitto zuri kalamastra bat hartuta, esanez harria baino erosoagoa izanen zaidala. Pentsatu dut hura aurkitu aurretik kalean botata egonen zela, gozotegi edo izozki-dendaren baten ondoan. Eskerrak eman dizkiot.

Halaxe, banku honetan eserita, beduinoen kanpamentuan, eguzkia gero eta beroago eta igelak erreka-ohere ia idorrean korroka ari direla, marrazten segitu dut.

Muino baten gainean, kilometro gutxi batzuk ezkererantz, bada israeldarren kokagune bat. Itxura militarra du, maniobra azkarretarako armamentu baten atal baten gisakoa. Nolanahi ere, txikia da, eta urruti dago. Handik hurbil, aurrean daukadan kareharri-muinoak animalia erraldoi lokartu baten buruaren forma dauka; gainaldean sakabanaturiko harriek arantzak dirudite haren ile-mataza nahasian. Bat-batean, pigmentu-eskasiarengatik atsekabeturik, ura isuri dut ontzitik nire oinen inguruko hautsera; hatza lohian sartu, eta kolore-igurtzi bat eman diot animalia-buruaren marrazkiari. Eguzki beroa dago

orain. Mando batek arrantza egin du. Koadernoko orriak pasatu ditut, beste bat hasteko asmoz, eta beste bat. Itxura batean, deus ez dago bukatua. Azkenean, gizon gaztea itzuli da: nire marrazkiak ikusi nahi ditu.

Koaderno irekia altxatu dut. Irribarre egin du. Orrialde bat pasatu dut. Zerbait seinalatu du. Gurea, esan du, gure hautsa! Nire hatza ari da seinalatzen, ez marrazkia. Gero, muinora begira geratu gara biok.

Ez nago konkistatuen artean, baizik eta garaituen artean. Eta garaileak garaituen beldur dira. Garaileen denbora laburra da beti; garaituena, aldiz, arras luzea. Haien espazioa ere desberdina da. Lurralde mugatu honetan, dena da espazio-kontua, eta garaileek badakite hori. Haien menderakuntza espaziala da batik bat. Horixe baliatzen dute, ilegalki eta nazioarteko legediari desafio eginez, kontrolguneen bitartez, errepide zaharrak suntsituz, Israelgo kolonoentzako ingurabide eksklusibo berriak eginez, mendi-gainetan kokagune gotorrak eraikiz –zeinak inguruko goi-ordokia zaintzeko eta kontrolatzeko guneak baitira egiaz–, etxeratze-aginduen bitartez –jendea etxean gera dadin gau eta egun, agindua altxatu arte–. Joan den urtean Ramallah inbaditu zutenean, sei aste iraun zuen etxeratze-aginduak, eta, zenbait egunetan, bi ordurako «altxatzen» zuten agindua, erosketak egiteko. Beren oheetan hil zirenak ehorzteko ere ez zegoen denborarik.

Eyal Weizman israeldar arkitekto disidenteak liburu ausart batean azaltzen du lurraldearen gaineko nagusitasun osoa auzo-planifikatzaile eta arkitektoen zirriborroekin hasten dela. Indarkeria tankeak eta jeepak iritsi baino askoz lehenago hasten da. Weizmanek «bertikaltasunaren politika» deritzo: haren bitartez, garaituak literalki ikuskatuak eta azpiratuak dira, are «etxean» daudenean ere.

Horrek sekula baretzen ez den eragina dauka egunerokoan. Norbaitek goiz batean bere buruari esaten badio «Banoa ikustera ea...», behingoan geratu, eta ongi begiratu beharko du zenbat hesi zeharkatu behar dituen bere «irteera» horretan. Eguneroko erabakirik arruntenekin loturiko espazioa mugatuta dago, hanka-besoak lotuta.

Horretaz gainera, egun batetik bestera hesiak ezustean tokiz aldatzen dituztenez, denboraren esperientzia ere hertsatuta dago. Inork ez daki zenbat denbora beharko duen gaur goizean lantokira iristeko, amarengana joan eta hura ikusteko, eskolara joateko, medikuarengana joateko, ezta zenbat denbora beharko duen ere ondoren etxera itzultzeko. Joan-etorri hori egiteko, bai alde batera, bai bestera, hogeita hamar minutu edo lau ordu beharko ditu, ez dago jakiterik, edo gerta liteke orobat fusil kargatuz armaturiko soldaduek bidea moztea.

Israelgo Gobernuak argudiatzen du behartuta daudela halako neurriak hartzera, terrorismoari aurre egiteko. Baina argudiaketa hori trikimailu hutsa da. Menderakuntzaren benetako helburua

populazio indigenaren denbora- eta espazio-jarraitutasunaren zentzua suntsitzea da, handik alde egin edo soldatapeko langile bihur daitezten. Eta, egoera horretan, hilik daudenek irauten laguntzen diete bizirik daudenei. Egoera horretan, martiri bihurtzea erabakitzen dute zenbait gizon eta emakumek. Menderakuntzak, hain zuzen, borrokatu nahi duen terrorismo hori bera hauspotzen du.

Harri-bide txiki bat, arroka saihestuz, beherantz, Ramallahren hegoaldeko haran baterantz. Batzuetan, sigi-saga egiten du zuhaitz zaharrek olibadi artean; haietariko asko erromatarren garaikoak izanen dira, beharbada. Bide harritsu hau (oso gogorra edozein autotan joanda ere) ondoko herrira iristeko modu bakarra da palestinarrentzat. Behinolako asfaltozko errepidea erabiltzea debekatua dute gaur egun, kokaguneetako israeldarrek erabiltzen baitute eskusiboki. Bizi-bizi noa oinez, betidanik baitzait nekagarriagoa mantso ibiltzea. Sastraka artean lore gorri bat hauteman dudalarik, hura hartzeko gelditu naiz. Geroxeago ikasi dut Adonis Aestivalis duela izena. Gorritasun bizikoa da, eta, botanikako liburuak dioenez, iraupen laburrekoa.

Bahak garrasika ohartarazi dit ez joateko ezkerrean daukadan muino garairantz. Norbait hurbiltzen sumatuz gero, dio garrasika, tiro egiten dute.

Distantzia kalkulatu naiz: kilometro bat baino gutxiago. Norabide desegokian berrehun metro harago, mando bat eta zaldi bat begiztatu ditut. Lotuta daude. Biok segurtasun-bermetzat harturik, banoa harantz.

Iritsi naizenean, bi mutil –hamaika eta zortzi urtekoak, gutxi gorabehera– lursail batean lanean ari dira, bakarrik. Gazteena ureztaontziak betetzen ari da lur azpian sartua duten upel batetik. Kontu handiz ari da, tanta bakar bat ere galdu gabe: ura oso preziatua den seinale. Zaharrenak, ureztaontzi bete hartu, eta, axola handiz, lursail goldatu baterantz jaitsi da, landareak ureztatzerako. Biak ala biak oinutsik daude.

Landareak ureztatzen ari denak keinu bat egin dit, eta harro-harro erakutsi dizkit ehunka landareren ilarak. Batzuk ezagunak zaizkit: tomateak, alberjiniak, luzokerrak. Joan den astean landatuak behar dute izan. Txikiak dira oraindik; ura behar dute. Bada bat zer den ez dakidana, eta bera ere ohartu da. Argi handia, esan du. Meloia? Shumaam! Barre egin dugu. Nigan iltzatu ditu bere begi irriberak, tinko. (Husni an-Najjar etorri zait gogora.) Biok, Jainkoak daki zergatik, une bera bizitzen ari gara. Landare-ilaretan behera eraman nau, zenbat ureztatu dituen erakusteko. Une batean, geratu egin gara; ingurura begiratu, eta kokagunea ikustatu dugu, haren defentsa-hormak eta teilatu gorriak. Kokotsarekin harantz seinalatzen duelarik, halako iseka bat dario haren keinuari, eta nirekin partekatu nahi du iseka hori, landareak ureztatzeak ematen dion harrotasuna partekatu duen era berean. Eta iseka



horrek irribarre konplize bat ekarri du gero, biok une eta toki berean pixa egiteko ados jarri izan bagina bezala.

Geroxeago, bide harritsura itzuli gara. Menda-belar ttiki batzuk hartu, eta sorta bat eman dit eskura. Haren freskotasun sarkorra ur hotzeko bafada baten gisakoa da, ureztaontziko ura baino hotzagoa betiere. Zaldia eta mandoa dauden aldera goaz. Zaldi zaltutsak kabestru uhaldun bat darama; ez, ordea, bridarik eta aho-burdinarik. Irudizko pixa-parrastada bat baino zerbait harrigarriagoa erakutsi nahi dit. Zaldi gainera jauzi egin du, anaiak mandoa lasaitzen duen bitartean, eta berehala abiatu da, lauhazkan, zelarik gabe, etorri naizen bidetik behera. Sei hanka ditu zaldiak, haietarik lau bere-bereak eta beste biak zaldunarenak, eta mutilaren eskuek kontrolpean dauzkate seiak. Hainbat bizialditako esperientzia balu bezala zamalkatzen da. Itzuli denean, irribarretsu dago, eta, lehenbiziko aldiz, lotsatu-antza.

Baha eta besteengana itzuli naiz, handik kilometro batera. Gizon batekin solasean ari dira, mutilaren osabarekin. Bera ere landare aldatu berriak ureztatzen ari da. Eguzkia beherantz doa, eta argia aldatzen ari da. Lur hori-marroixka, zeina ilunagoa baita ureztaturiko zatietan, paisaia osoko kolore nagusia da orain. Gizona bostehun litroko plastikozko upel urdin iluneko uraren azken hondarrak ari da erabiltzen.

Upel urdinak hamaika adabaki josiak ditu gainaldean, kontu handiz josiak denak ere, gurpil zulatuak konpontzeko erabiltzen direnen antzekoak, baina handiagoak. Gizonak azaldu dit halaxe konpondu zuela upela, Halamisheko kokaguneko –teillatu gorrien kokaguneko– banda batek labanaz zulatu baitzizkien urontziak gau batez, udaberriko euriz beteak zirela jakinik. Beste upela, beheko terrazan botata dagoena, ezin izan zuen konpondu. Terraza berean urrutiago, olibondo baten motzondo bihurritua ageri da, eta, haren zirkunferentzia ikusita, ehunka eta, apika, milaka urte behar ditu izan.

Duela zenbait gau, esan du osabak, motozerra batekin ebaki zuten. Hona Murid Barghutiren beste aipu bat: «Palestinarrentzat, oliba-olioa bidaiariaren oparia da, andregaiaren konforta, udazkeneko saria, biltegien harrotasuna eta familientzako aberastasuna mendeetan zehar».

Geroago, Zakaria Mohammeden «The Bit» [Aho-burdina] poema aurkitu dut, zeinean zaldi beltz bat aipatzen baitu, bridarik gabea, odola ezpainetatik tantaka dariona. Zaldiarekin batera bada mutil bat ere, zur eta lur, odolarengatik.

Zer ari da mamurtzen zaldi beltza?,

galdetu du.

Zer mamurtzen du?

Zaldi beltza

hozkaka ari zaio

altzairuzko aho-burdina bati

memoria puska bati

murtxika eta murtxika

hil arteraino.

Menda-belar ttikia eman didan mutila zazpi urte zaharragoa balitz, ez litzateke zaila imajinatzea zergatik sartu zen Hamasen, bere bizitza sakrifikatzen prest.

Arafaten egoitza birrinduaren hormigoizko blokeen eta harrizko horma erorien pisuak garrantzi sinbolikoa hartu du Ramallahen erdigunean. Ez, hala eta guztiz ere, israeldar komandanteek espero zuten eran. Arafat eta haren taldea barnean zirela Mukata suntsitzea haren umiliazioa publikoki erakusteko modu bat izan zen, eta, era berean, okerrena etortzeko zela iragartzeko abisu pribatu bat izan zen armadak sistematikoki arpilatu eta miaturiko apartamentu pribatuetan arropa, altzariak eta hormak ketchupez zikintzea.

Arafatek, nolana ere, munduko beste edozein buruzagik bere herria ordezkatzeko duen baino hobeki ordezkatzeko ditu palestinarrenak. Ez demokratikoki, baizik eta tragikoki. Eta horregatik du garrantzia. PAEK –Arafat buru dela– eta inguruko arabiar estatuak eginiko akats ugarien ondorioz, ez dauka tarte handirik maniobra politikorako. Lider politiko bat izateari utzi dio. Baina segitzen du dagoen tokitik desafio egiten. Inork ez du berarengan sinesten. Eta askok bizia emanen lukete haren alde. Nola liteke? Politikari bat baino gehiago, harri txikiz osaturiko mendi bat bilakatu da, baina aberriaren mendi bat betiere.

Ez dut sekula lehenago ikusi halako argirik. Zerutik behera etortzen da, erregulartasun estrainio batez, urrutikoa eta hurbilekoa ez bereizteko moduan. Urruntasunaren eta gertutasunaren arteko desberdintasuna eskala-kontua da, sekula ez kolorearen, testuraren edo zehaztasunaren araberakoa. Eta horrek eragina dauka zeure burua kokatzeko eran, eragina dauka hemen egoteari ematen diozun zentzuan. Lurra zure inguruan egokitzen da, zuri aurre egin beharrean. Arizonaren kontrakoa da. Hurbiltzeko keinu egin beharrean, inoiz ez alde egitea gomendatzen dizu.

Eta halaxe nago hemen, Poloniako, Galiziako eta Austria-Hungariako inperioko nire arbasoetako batzuek gutxienez bi mendean zehar elikatu eta aipaturiko amets bateko irudi bat banintz bezala. Eta, hemen, zalantzarik gabe bat egiten dut Israelgo estatuak (eta neure lehengusu-lehengusinek) totalitarismo tragiko batez samintzen dituen horien bidezko kausarekin eta minarekin.

Riad, zurgintzako irakaslea bera, bere marrazkien bila joan da, niri erakusteko. Haren aitaren etxeke lorategian eseri gara. Aita aurreko lursaila goldatzen ari da, bere zaldi zuriarekin. Marrazkiak aldean hartuta itzuli da Riad, metalezko artxibategi zahar batetik atera balitu bezala. Mantso ibiltzen da, eta oiloak are mantsoago baztertzen dira haren bidetik. Aurrean eseri zaidalarik, banan-banan eman dizkit bere marrazkiak. Mina gogorreko arkatzez eginak dira, buruz eta egonarri handiz. Trazuz trazu, lanak amaitu ondoko iluntzeetan, arkatzaren gris zilarkara berak nahi bezain beltz bilakatu arte. Orri handietan eginak dira.

Ur-pitxer baten marrazkia. Amaren marrazkia. Etxe suntsitu baten marrazkia, dagoeneko desagertuak diren geletara ematen duten leihoena.

Azkenean marrazkiak lurrean utzi ditudanean, gizon zaharrago bat etorri zait, nekazari baten aurpegi zailduaz. Badirudi badakizula zerbait oilaskoez, esan du. Oiloak, gaixotzen delarik, arrautzak erruteari uzten dio. Ez dago zereginik. Egun batean, iratzarri, eta sentitzen du Herio hurbil daukala. Egun batean, ohartzen da hilko dela, eta zer gertatzen da? Berriz erruten hasten da, eta heriotzak ez beste deusek ezin du gerarazi. Gu oiloak bezalakoak gara.

Kontrolguneek barne-mugak inposatzen dituzte lurralde Okupatuetan; ez dute, ordea, ohiko mugapostuen antzik. Haietatik igarotzen den oro iheslari ukatuen mailara behertzeko moduan eraiki eta erabiltzen dira.

Saihetsezina da ez ohartzea zer-nolako garrantzia duen Begiramenak menderakuntzarako, etengabe erabiltzen baita oroitarazteko nor diren garaileak eta nork onartu behar luketen konkistatuak direla. Palestinarrek beren aberrian iheslarien rola jokatzearen umiliazioa nozitu behar dute, are egunean behin baino gehiagotan.

Kontrolgunea gurutzatzen dutenek oinez segitu behar dute aurrera, eta soldaduek, beren arma kargatuak beti prest, nor miatu nahi duten aukeratzen dute. Ezein ibilgailuk ezin du kontrolgunea gurutzatu. Betiko errepidea suntsitu egin zuten. Derrigorrezko ibilbide berria arrokaz, harriz eta

bestelako behaztopa txikiz beteta dago. Hori dela eta, den-denek, baita sasoiak daudenek ere, kostarik lortzen dute hura gurutzatzea.

Gizon gazte batzuek, diru-sari txiki baten truke, zurezko kutxatan garraiatzen dituzte gaixoak eta adinekoak, lau gurpilen gainean (merkatuan barazkiak garraiatzeko erabiltzen diren kutxa horietakoak dira). Bidaiari bakoitzari kuxin bat ematen diote, kolpeak leuntzeko. Haien istorioak entzuten dituzte. Beti jakiten dituzte azken albisteak. (Mugak egunero aldatzen dira.) Aholkuak ematen dituzte, atsekabetzen dira, eta ematen duten laguntzatxoaz harrotzen. Akaso, tragediaren Korua izatetik hurbilen daudenak dira.

Bidaiari batzuk makila baten laguntzaz ibiltzen dira, beste batzuk baita makuluekin ere. Normalki autoko maletategian eramaten diren gauzak fardeletan bildu, eta eskuan edo bizkarrean hartu behar dituzte. Kontrolgunerainoko distantzia goizetik gauera alda daiteke, 300 metrotik 1,5 kilometrora.

Palestinar bikoteek, salbu gazte sofistikatuenetako batzuek, normalki, elkarrengandik zertxobait aldentuta ibiltzeko lotsa agertzen dute jendaurrean. Adin guztietako bikoteek eskutik helduta iragaten dituzte kontrolguneak, oinkada seguruak bilatuz eta zehatz-mehatz kalkulatu zein den erritmorik egokiena berei begira dituzten armen ondotik pasatzeko, ez azkarregi –presaka joatea susmagarria izan daiteke–, ez mantsoegi –zalantzati agertzea jolas bihur daiteke guardien asperdura kronikoa arintzeko–

Israeldar soldadu askoren (ez guztien) mendeku-gosea berezia da. Ez du zerikusirik Euripidesek deskribatu eta deitoraturiko krudelkeriarekin, hemen borroka ez baita berdinen artekoa, baizik eta botere-ahalguztidunen eta itxuraz boteregabeak direnen artekoa. Ahalguztidunen boterea, baina, amorrutako frustrazio batez lagunduta dator, ohartuak baitira armak izanda ere beren boterea mugatua dela modu ulertezin batean.

Euro batzuk aldatu nahi ditut sikloen truke (palestinarrek ez dute diru propiorik). Kale Nagusian behera noalarik, zenbait denda txikiren ondotik iragan, eta, noizbehinka, gizon bat ikusten dut aulki batean eserita, behinola tankeen inbasioaren aurretik espaloi izandako horren gainean. Billete-sortak dauzkate eskuetan. Gazte batengana hurbildu, eta esan diot 100 euro aldatu nahi ditudala. (Diru horrekin, haur batentzako eskumuturreko bat eros liteke bitxi-denda batean.) Poltsikoko jostailuzko kalkulagailu batean kalkulua egin, eta ehunka zenbait siklo eman dizkit.

Aurrera segitu dut. Mutiko batek –haren adinari erreparatuta, imajinaturiko urrezko eskumuturraren jabea litzatekeen neskatoaren anaia izan liteke– txikle saldu nahi dit. Ramallahko bi iheslari-esparruetako batean bizi da. Erosi diot. Diru-zorroan txartel magnetikoak eramateko plastikozko zorrotxoak ere saltzen ditu. Kopeta zimurtuz, txikle gutzia erosteko eskatu dit. Horixe egin dut.

Handik ordu erdi batera, barazki-azokara iritsi naiz. Gizon batek bonbilla baten tamainako baratxuri-buruak saltzen ditu. Jende asko dago, elkarrengandik oso hurbil. Norbaitek txapaka egin dit sorbalda batean. Atzera begiratu dut. Diru-trukatzailea da. Tori, esan dit, behar baino berrogeita hamar siklo gutxiago eman dizut. Hamarreko bost billete hartu dizkiot. Erraz aurkitu zaitut, gehitu du. Eskerrak eman dizkiot.

Haren begien espresioak atzo ikusi nuen emakume adintsu bat ekarri dit gogora. Momentuari oso adi dagoen begirada bat da. Lasaia eta zuhurra, azken momentua balitz bezala.

Diru-trukatzaileak, orduan, jiratu, eta bere aulkiranzko itzulera luzeari ekin dio.

Emakume adintsua Kobar herrian ezagutu nuen. Haren etxea hormigoizkoa zen, bukatu gabea eta soil-soila. Egongela biluziko hormak haren iloba Marwan Barghutiren argazki markodunez beteta zeuden. Marwan mutikotan, nerabetan, berrogei urterekin. Orain, Israelgo kartzela batean dago. Bizirik irteten bada, Fatahko buruzagi politiko bakarretakoa izanen da nahitaez solaskide gisa hartu beharrekoa bake-akordio sendo bat lortzeko.

Limoi-ura edaten ari ginela eta Izeba kafea prestatzen ari zela, haren bilobak lorategira atera ziren: zazpi eta bederatzi urte inguruko bi mutiko. Gazteenak Aberri du izena; zaharrenak, Borroka. Hara-hona lasterka hasi, eta, bat-batean, gelditu egiten ziren, erne-erne elkarri begira, zerbaiten atzean ezkutatuta egon eta burua aterako balute bezala, besteak ikusi ote zituen jakin nahian. Ondoren, berriz abiatzen ziren beste ezkutaleku ikusezin batera. Maiz jolasten ziren berek asmatu-rikoko jolas hartan.

Hirugarren haurrak lau urte zituen. Orban zuri-gorriak zeuzkan aurpegian, pailazo bat iduri, eta bazter batean geratua zen, pailazo baten gisara, malenkoniatsu, trufari, zalantzati, jolasa noiz bukatuko zen ez zekiela. Astanafarreriak jota zegoen, eta bazekien ezin zela bisitariengana hurbildu.

Izebak, agur esatera etorri zitzaidanean, eskutik heldu zidan, eta espresio berezi hura zegoen haren begietan, momentuari adi egotearena.

Demagun bi lagun mahai-zapi bat zabaltzen ari direla mahai baten gainean eta elkarri begiratzen diotela zapia ongi jarrita dagoen ala ez ikusteko. Imajinatu mahaia mundua dela eta zapia, berriz, salbatu behar ditugunen bizitzak. Horixe zen espresioa.

Letoizko katilu txiki bat Beldurraren Ontzia deritzona. Filigrana geometrikoen irudiak eta Koranaren bertso batzuk lore-forman irarriak dituena. Bete urez, eta utzi kanpoan gau batez, izarren pean. Gero, edan ur hori, eta, bien bitartean, egin otoitz, oinazea arindu eta senda zaitez. Gaitz askotarako, argi dago, Beldurraren Ontziak eraginkortasun txikiagoa dauka antibiotikoek baino. Baina izarren denbora islatua duen katilu-urak, izaki bizidun ororen lehengai den ur horrek, Koranean esaten den bezala, menderakuntzari buru egiten lagunduko dizu agian...

Ramallatik alde egin nuenetik bi astera, Finisterren nago, Frantziako ipar-mendebaldean, itsasoari begira. Klimaren eta landaretzaren kontrastea ez zitekeen handiagoa izan. Amankomunean duten gauza bakarra laharren ugaritasuna da: toot il alliq. Finisterreko kostaldea berdea da, iraztorrez betea, harik eta haitzetan amiltzen den arte. Eta ezin konta ahal uharte txikitan apurtzen da ozeanoaren danbatekoaren ondorioz, ozeano bat ordu erdiz behin kolorea aldatzen zaiona. Europako mendebaldeko kostaldeari, Cornwalleetik Galiziaraino, Lurraren Amaiera esaten zaio. Hemen, lurra iraztorretan eta harkaitz-itxurako uhartetxoetan amaitzen da.

Munduko monumenturik zaharrena ikustera etorri naiz, lehen piramideak baino mila urte lehenago eraikia. Hilobi-monumentu bat da. Harri-meta bati begira nago, Eqbal. Gidaliburuek diote cairn bat dela.

Nolanahi ere, harri-meta bat baino gehiago da: eskultura oso-oso artikulatu bat. Berrogei zentimetroko puska bakoitza, nolabait esateko, eskuz idatzia izan da. Hirurogeita hamar metrotik gora luze da, hogeita bost metro inguru zabal eta zortzi-hamar metro altu, eta harri bakoitza apropos elkartzen da hurrengoarekin norabide bakoitzean, harriak eskuz idatzitako hitzak balira legez.

Imajinatu itsasontzi baten bizkarra. Ipar-ekialderantz doa; Morlaixeko badiatik irten, eta mendebalderantz eginen du, Amerikarantz. Branka homerikoko itsasontzi hori (hemengo elezaharrek diote Odiseo kostalde honetatik iragan zela Corkera bidean) harriz eginda dago, modu natural batean lurrarekin bat eginda!

Karbono-datazioen arabera, gutxienez duela sei mila urte eraiki zuten, bi alditan. Lehenbizi, txopa egin zuten, diabasa-harri metamorfiko berdekaraz. Harri hori, zeinak lur azidoa eratzen baitu iraztorren azpian, ugaria da kostalde guztian. Gero, mende bat edo bi geroago, branka gehitu zioten, gehiena Sterec uhartetxoko olo-koloreko granitoz egina.

Hirugarren eraikuntza bat ere izan zen, heriotzaren bigarren itsasontzia zatekeena, baina guztiz suntsitu zuten 1950eko urteetan; izan ere, eremu osoa landaretzaz eta lurrez estalia zelarik, harrobi gisa ustiatzen hasi ziren, eta legarra egiteko erabili zituzten hango harriak.

Arkeologoek ondorioztatu dute itsasontziaren atal bakoitza hilabete gutxian eraiki zutela bi aldiotan. Eta horrek, lanaren tamaina ikusita, pentsarazten digu ehunka kolonok osaturiko komunitate oso batek jardun zuela zeregin hartan.

Harri gehienek gizaki indartsu batek bi besoekin garraia lezakeenaren neurria eta pisua dute. Badira txikiagoak ere, ukabil bat bezain txikiak, harririk handienen arteko juntura perfektuetan geraturiko hutsune setatiak betetzen dituztenak. Itsasontziaren bizkarrak leunak dira, ez harriztatuak. Eta badira megalito gutxi batzuk ere, pertsona bat baino altuagoak, zenbaitetan korridoreetako sarrerren gainean ateburu gisa jarriak edo, ganga-formako ganberen sabai gisa erabiliak. Behereneko bizkarrean, harri lehorreko hogeita bi pasabide daude, ababorretik eta istriborretik ganga-formako hamaika kamarotetara doazenak. Han paratzen ziren hilotzak.

Pasabide horietako batean barrena abiatu naiz, zeina erdigune baterantz doan esaldi gisako bat baita, eta, hemen, santutegi erdisuntsitu honetan, mentsula-harriei begira nagokie. Kostalde honetako hondartzetako beste milioika harri bezalakoak dira; hemen, ordea, harriak mintzo dira, elokuenteak dira, beren antolaerari zor.

Kaosak bere arrazoiak izanen ditu beharbada, baina kaosa mutua da. Gizakiak antolatzeko eta kokatzeko duen gaitasunetik eratorri dira hizkuntza eta komunikazioa. Kokatze aditza eta izena izan liteke aldi berean. Antolatzeko gaitasuna eta leku bat identifikatu eta izendatzeko gaitasuna. Biak ala biak, beren jatorrian, ezin bereizi dira gizakiak bere hildakoak errespetatzeko eta defendatzeko duen premiatik. Ez al da hala?

Konparazio bitxi bat bururatu zait. Jendea hainbat hilabeteen elkarrekin lan eginez harrizko itsasontzi hau eraikitzen bultzatu zuen zer hori aski hurbil dago, beharbada, Palestinako gazteak armada okupatzailearen tankeen aurka harriak botatzera bultzatzen dituen horretatik.